

Gure kondeak

Deia, 1977-07-10.

Ni ezagutu izan ditudan kondeak, izengoitiz deituak bakarrik izan dira. Gure herrietan ez bait da bestelakorik.

Eta hala ere aitortu beharrean gara euskaldunok Konde eta Markes izateko erakutsi dugun zaletasun eta makurdura. Ez da gure grina bakarrik izan, noski. Gauza bat bait da nahi izatea, eta beste bat guk nahi izan dugun hori inork debalde, dohan, ematea.

Nola-ta hainbesteko ohore hau euskaldunei?

Madrid-ek gukin izan duen jokabidea, gainontzeko herriek bere koloniek izan duten ber-bera da. Zentroan zeuden erregeak behar zituzten laguntzaile lehialak, morroi zintzoak, eta hoiek erosi egiten dira. Diruz, noski, baina batez ere xuriketa bidez. Gizona puzten da edozerekin. Kateak baino gogorrago lotzen du erregetzara harmarri eta larrutx-pergaminoak. Herri kolonial guztiak sistema berakin agindu dute Afrikan eta Europan.

Egun hoietan gure herriko Konde bat aitatu da euskal prentsan. Motriko-koa, hain zuzen.

Ez da gizon hau motrikoarra; tituloa bera ere saihestetik heldu zaiona da, baina honelako morrontzak heredentziagarriak dira nonbait. Ba Motrikoko Kondeak orain zaharrez erortzen zegoen gaztelu bat erosi du, merke, eta kolokan dauden harri landuak banan bana kendu eta beste lekuren batean berregin nahi du gaztelua.

Amerikanoak Eskoziako fantasma-dun gaztelu bat baino gehiago Kansasera eraman dituzten bezala.

Hala ere, denak dakitena da, fantasma eskoziarrak Eskozian geratu direla.

Motriko-ko Konde deritzanak Larragoiti-ko gaztelua Zamudio-tik ateratzen duenean ere, ez du dituen harriekin beste Larragoitiko animarik lur berrira (Madrid-era edo noranahi dela) eramango.

Zamudion geratuko zaio.

Harmarriak eta soinburdinak eta korazak non nahi saltzen dira orain aintzinako gauza zaharrak lapurretan bezala erosten dituzten denda hoietan, gizona! Behar bada, bezperan bukatuak ere ba dira! Lehen debozio askoko izan eta on asko eginak diran ispiriturik gabeko santu-irudi asko saltzen ari diren bezala.

Egur-gorputzak, harriak, salgai daudenez, erosiko dituzte, noski; ez, ordea, irudi hoiek erne zuten ispiriturik.

Hara orain gure kondeak zertan dabilizan!

Ez dituzte lehengo harmarriak eta tituloak eta ohoreak eta hoiek ematen dituzten diruak aski. Besteren merituak ere nahi lituzkete nolabait bereganatu.

Eta ez dakit zertarako.

Neri titulo guzi hoiek, Pio Barojak behin aitaturako zerbait gogora arazten dit:

"Ez dakit norbaiten aitona erregeari kaltzontziloak jazten laguntzen ziola-ta jasotako titulo batek nola gizon bat lilura lezaken".

Buruz ari naiz, baina honelako zerbait zen.

Eta don Pio-ren ispiritu irreberente honekin bat datorren zerbaitekin lotu nahi dut gaurko nere azalpen hau.